



BARREN

TOKIKOM

Txistua, afizio eta ofizio

Juan Carlos Larreategi





Euskara, generoaren ikuspegitik

“Beste hizkuntzetan bezala, euskaraz ere posible da desagoki adieraztea generoari dagokionez. Eta egoki ere bai, zalantzarik gabe. Zeintzuk dira erabilera desagokiak? Zeintzuk dira aukerak? Non daude debateak eta erronkak?”



Amelia Barquin

Urriak 18, asteazkena.
19:00etan, Kultur Etxeko hitzaldi-gelan.

Antolatzaileak:



elgoibar

EL GOI TIAR
BERDINTASUNA

Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzaren Berdintasunaren Departamentua



IBON SERRANO LASA



“**BARREndarrok! Lehor itzazue masaileko malko horiek! Uxa goibeldura!**”



C'est fini Ar-khadi, 2 urte ondoren, biok erabaki bezala, ziklo tantriko literario hau bukatu beharrean gara.
[-BARREnek botatzen zaituzte barren!]

(...isilduko al zait “irakurlebakar”?) Tartean hainbat eta hainbat kontuz mintzatu gara; bizimolde osasuntsuez, tupalawiez, filosofiaz, historiaz, santuez, terolismo & porrotxismoaz, sexu alberdaniaz eta abar luze bat. Desolationez, tintontzian utzi behar izan dugu beste gai sorta zabal bat: Klima aldaketarekiko gure tesia, berriki irakurritako *Erresuma eta fedea* trilogia bikaina, Dolomitetan aurkituriko euskal aztarnak; eta baita, Elgoibarko haur eta gazte euskaldunen artean uda ondoren eman den eusKañoletik eus-Pañolerako jauzi ebolutibo logikoa.

[-Eskerrak kaleratu zaituzten.]

Aniztasun ugaria den arren, zenbait konstante mantendu dugu urteotan; batik bat, ongizate aukerak eskaini nahi izana berakatz-frijitu kiratsa darion gizarte honi. Oraindik gure eraginkortasuna neurtzeko goiz da, baina eremu morfiko komunikatiboei esker, badiudi Catalunyatik kasu egiten ari zaizkigula.

[-Einn?]

Idazte moldeari dagokionez, gozogintza fina izan da gurea. Goi mailako hizkuntzaz jantzi garelarik; euskalki klasiko ezberdinez loratu, galizismo ukituz pinpirindu, eta atmosfera erromantikoz lurrindu dugu harri bitxi literario bakoitza. Alta, gure lehentasun nagusia beti izan da produktu irakurterraza eskaintzea. Zalantzarik gabe, eta apaltasunez diot, lortu dugun emaitza.

[-Idazkera pedante eta ulertezinagorik ez dut ezagutu.]

Aitortu beharrean gara kultuzko altxor literarioa irten zaigula; ezin harritu gaitezke beraz maleruski adio esan beharreko alimalako BARREndar jarraitzaile leial andanaz.

[-Alegia, zuek biotaz gain, ni neu; heste-idorreria laxatzeko erremedio bikaina izan baitzait.]

Baina, agurraren berri eman eta zer dakusat irakurleon bisaetan? BARREndarrok! Lehor itzazue masaileko malko horiek! Uxa goibeldura! Ulertzazue koherentziak agintzen digula agur atzerezin hau! Ar-Khadi mouffi ohoregarria, benetan baitzara bihotzeko lagun eskergarria, zabal mesedez zure lerroen bitartez kontsolamendua!

[-Baish!! Baish!! Nahikoa!! Aski!! Utikan!!].



ARKAITZ IRURETA ARRIETA

“**...eta Kitto!’-n curriculuma lagatzen ahalegindu geinkela uste dozu?**”

Kontsolamendu biharrik ez; nik esker ona besterik ez daukat atal honekiko. Harrotasunez esan neike atal honetan kolaboratzaile izan zaituztedanoi ekarpen haundixa egin diezuedala.

Umetako lagun Sugarrekin idazten hasi nitzan, eta pare bat urteren ostian bere bizitzak sekulako iraultza eduki zuan. Ondoren “salbatuko” nuana billatzen hasi nitzan. Justok hartu zion Sugarri errelebua, eta idazletasuna berpizten lagundu niola esan neike. Ondorixua: liburu mardula argitaratu dau Justok.

[-Serranokerietan hasi da hau ere!! edertasunaz kutsatuko balitz bederen...]

Orduan agertu ziñan zu, ordura arte landu gabeko diamantera purua. Gaur izan bazan bezela gogoratzen dot lehengo testu haura; hórrek ideia zurrumbillo gordinok zugan sortzen zaben eziñegonari aurre egin ezinda zeunden. Hainbeste lan neukan zurekin egitako... Eta nik, Elbrutz mendiko Ar Khadi gorenak, erronkazale amorratua izanda, gustu haundiz onartu nuan desafiua.

Momentu hau iritsita, BARREneko langilliak, IDEKOko lankidiok, irakurlebakar, eta irakurri edo ulertu ez arren Iboni testu ederra idatzi duala esaten diozuenak, ospatzeko moduan gaude. Ez da lan erraza izan, baiña bide polita egin dogu danon artian. Edurne, uste dot gu danokin, baiña batez ere BARREnekin, zor bat daukazula, Ibonen entretenigarri izan garalako.

Halere, Ibon-Tse, onartu behar dizut orainguan zuk sortu dozula nigan aura berezi bat. Intelektual plantak egittiak eman dit nere fruitua, eskaparate bikaiña eskaiñi didazu irakurri ez gaituztenen artian ere.

Gauza asko laga dittugu esateke, laburmetrai batetarako beste. Orain *cachea* irabazitta, ...*Eta kitto*-n curriculuma lagatzen ahalegindu geinkela usten dozu? Lehen maillako futbol taldea, zezen plazia, eta bi sasi intelektualen fitxaketarekin Elgoibar atzean lagako leuke zure jaioterrixak. Edozein kasutan, milla esker, Ibon-Tse; plazer hutsa izan da.



ENETZ EZENARRO

Matematika irakaslea EHU



New Yorken zer berri

zazpi pertsona bizi direla. Hona hemen baieztapen horren justifikazio bat. New Yorkeko biztanle kopurua aldarrikorra izanda ere, onargarria da 7,5 milioitik gorakoa dela. Onargarria da baita ere hauetako bat bera ere ez dela 120 urtera ailegatzen. 120 urtetan, $120 \times 12 \times 366 \times 24 = 1.054.080$ ordu baino gutxiago daude, urte gutxiak ez baitira bisiestoak. 0 eta 1.054.080 arteko ordu kopurua dauka, beraz, New Yorkeko edozein biztanlek oraintxe. Eman dezagun New Yorkeko biztanleak bizi izandako

ordu kopuruaren arabera sailkatu nahi ditugula. Talde bakoitzean gehienez 7 baleude, $7 \times 1.054.081 = 7.378.567$, ez lirateke 7,5 milioira iritsiko New Yorkeko biztanleak. Baina gehiago direla onartu dugu. Beraz talderen batean 7 baino gehiago izan beharko dira derrigor. Hau da, urte, egun eta ordu berean jaiotako 7 lagun baino gehiago.

Emitza honek ez du seguruenera, irakurle, zure bizitza aldatuko. Baina nire uste apalean arrazonomendu matematikoaren indarra agerian uzten du.

Ez da erraza gauzak erabateko ziurtasunez baieztatzea. Bihar eguzkia aterako den ziurtasuna ere ez da maila horretara ailegatzen. Baina, esaterako, erabat ziurra da momentu honetan New Yorken urte, egun eta ordu berean jaiotako, gutxienez

“Erabat ziurra da momentu honetan New Yorken urte, egun eta ordu berean jaiotako gutxienez zazpi pertsona bizi direla”



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zofoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldeggi **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ OHARRA

Pilarika Eguneko jai-zubia dela eta, urriaren 13an ez dugu BARREN kaleratuko. Hurrengo alea, beraz, urriaren 20an jasoko duzue.

BARREN

▶ 'MOTXILAREN UMEA'

Urriaren 20an, ostirala, *Motxilaren umea* dokumentala ikusteko aukera izango dugu Musika Eskolako auditorioan. Espainiar Estatuak aplikatzen duen espetxe politikaren zutabea da sakabanketa. Egun Frantziako eta Espainiako espetxeetan dauden 319 presoetatik %80 daude 400 kilometro baino gehiagora. Honek ondorio ikargarriak ekartzen dizkio familiari, bai

diru aldetik, bai arrisku aldetik (16 se-nide hil dira bidaietan). Egoera hauek larritu egiten dira senideak nagusiak direnean (guraso, aiton-amonak), edota umeak direnean. Azken hauetan jartzen du fokoa dokumental-filmak eta umeek egoera hau nola bizi duten erakusrtzen du. Dokumentalaz gain, Imanol Iparragirre preso-ohiak bere bizipen pertsonalak kontatuko dizkigu, bera espetxean zegoen bitartean izan zituztelako bi semeak. Ekitaldia arratsaldeko 19:30ean hasiko da, eta 20:30erako bukatuko dela aurreikusten dugu. Gonbidapen zabala egin nahi dugu hemendik elgoibarko herritarrei parte hartu dezaten

SARE Elgoibar

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaz:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztekeraz datorren eskutitzik argitaratuko.

50



Irteerarako
 (R) (E)

Eskola-garraiorako zerbitzua

- Ikastetxeetarako joan-etorriak
- Kirol-taldeen garraioa
- Irteeretarako garraio-zerbitzua

*Beti orduan eta ordurako.
Konfiantzazko garraioa.*



Pol. Ind. Iqartualdea, 27 - 20850 Mendaro - Tel. 943 741 677 - www.dariobus.com - clientes@dariobus.com



San Roke kalea 15 - 20870 Elgoibar
 Koordinadak: 43.212760, -2.416292

ETXEBIZITZA ETA GARAJEEN HURRENGO ERAIKUNTZA UBITARTEN

943 31 65 86

INFORMAZIO
GEHIAGO www.sukia.com



Zure etxean zaude. *Estás en tu casa*



Finantzaberriraketa



KUTXAKO

Lapiko jotzeak eta elkarretaratzeak egin dira egunotan, Espainiako polizien oldarraldia salatu eta Kataluniari babesa agertzeko



Joan zen ostegunean Udalak deituta Elgoibarren egin zuten elkarretaratzeko argazkia.

Mobilizazioen astea izan da. Igandetik atzo arte, hainbat lapiko jotze eta elkarretaratze egin dira Elgoibarren eta Mendaron, Espainiako Poliziaren eta Guardia Zibilaren oldarraldiak salatu eta Kataluniako herritarrei babesa agertzeko. Joan zen ostegunean, Elgoibarko Udalak deituta, elkarretaratzea egin zuten Elgoibarren, *Kataluniarekin bat* lelopean. Aurretik, Kataluniako prozesu de-

mokratikoa babesteko adierazpen bateratura adostu zuten EAJk eta EHBilduk Udalbatzarraren Osoko Bilkuran. Espainiako Estatuak Katalunian egiten ari denagatik kezka agertu zuten eta babesa agertu zieten Kataluniako erakundeei eta Espainiako poliziek jazartuak izaten ari ziren guztiei. Katalunian iganderako deituta zuten erreferendumak herritarren gehiengoaren nahiari erantzuten zion tresna demokratikoa zela nabarmendu

zuten eta emaitza errespetatzeko eskatu zieten erakundeei.

Igandean, berriz, lapiko jotzeak egin zituzten Elgoibarren eta Mendaron, eta ondorengo egunetan, eta bereziki Katalunian deitutako greba egunarekin bat eginez, mobilizazio ugari egin dira, EHBilduk, Gure Esku Dagok eta gehiengo sindikala osatzen duten ELA, LAB, ESK, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatuek deituta.



Igandean lapiko jotzeak egin zituzten herri askotan. Argazkia Mendarokoa da.

Belaustegi izan da Debarroko jatetxerik "xarmantena" 'Juego de cartas' saioan

Asteleheneko *Juego de cartas* saioan hartu zuen parte Elgoibarko Belaustegi jatetxeak, eta bera aukeratu zuten Debarroko jatetxerik "xarmantena". Sukaldaritza espezialitate bera duten Euskal Herriko lau jatetxe jartzen dituzte aurrez aurre saio bakoitzean, eta arduradunek euren ematen dituzte botoak. Bergarako Lasa jatetxea, Leintz Gatzagako Arrate eta Oñatiko Etxe Aundi jatetxearekin leihatatu behar izan zuen Josu Mugerza Belaustegiko sukaldariak. Sukaldaritza tradizionala, ukitu orientalekin uztartzen du Mugertzak. Espazioa, azpiegitura eta sukaldearen antolamendua, menua, zerbitzua, eta kalitatearen eta prezioaren arteko harremana hartzen dituzte kontuan saria ematerako orduan. 2.000 euroko saria jaso zuen Mugertzak.



Emakumeen ahalduntzerako coaching tailerra, Elgoibarren

Emakumeen ahalduntzerako coaching tailerra antolatu du Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak. Hogei orduko tailerra izango da, eta Eider Perezek zuzenduko du. Asteartetan izango dira saioak, Kultur Etxeko Sotoan, 18:30etik 20:30era, ondorengo egunetan: urriaren 10ean, 17an, 24an eta 31n, azaroaren 7an, 14an, 21ean eta 28an, eta abenduaren 5ean eta 12an. Coaching metodologia erabilita, norbere burua hobeto ezagutzeko moduak aztertuko dituzte, norberaren jokabideez jabetzeko. Era berean, autokonfiantza eta autoestimuan irabazteko bideak ere aztertuko dituzte.

Plaza mugatuak direla jakinarazi dute antolatuzaileek eta aurrez jabetze eskolan antzeko ikastaroetan parte hartu dutenek lehentasuna izango dutela izena emateko orduan. Izena emateko: Udaleko Arreta bulegora jo daiteke edota telefonoz deitu (943 741 050) edo emailaz idatzi (arreta@elgoibar.eus).

San Roke kaleko espaloiak konponduko ditu Elgoibarko Udalak



San Roke eta Arreiturre kaleetako ur-hornikuntzako sarea berritzeko lanak hasi ditu Udalak, eta lan horiek aprobetxatuta, espaloiak konpondu eta zabalduko dituzte. Guztira, 858 metro fibrozementuzko hodi aldatuko dituzte. Lan hauen helburua bikoitza da: batetik, ur-hornikuntzako saretik fibrozementu materiala kentzea; eta bestetik, sareak zaharrak direlako eta sortzen diren matxurak, ur isuriak eta kalteak murriztea. Guztira 231.342,84 euro inbertituko dituzte obra honetan, eta 16 astetan amaitzea aurreikusi dute.

Ufalak sahiesteko obrak Mendaron

Garagartza auzoko bizilagunen eskaerari erantzunez, uholdeak sahiesteko hainbat lan egin ditu Mendaroko Udalak. Eusko Jaurlaritzako Ura agenziako eta Gipuzkoako Ur Kontsorzioko teknikoekin egon ondoren, bi puntu beltz identifikatu zituzten; Errekabarrenen bat, eta bestea, Garagartza eta Trinitate kaleak bat egiten duten lekuan. Puntu horiek berriz urak har ez ditzan, klapetak ipini dituzte, errekarra doazen hobietatik ura irtetea eragozteko.



Stock feria antolatu du Txankakua merkatariek elkartek biharko



Txankakua merkatariek elkartek antolatuta, stock feria egingo dute bihar herriko merkatariek, merkataritza txikiari bultzada emateko asmoz. Kalera irtengo dira merkatariek, hain zuzen ere, Maalako parkera, 10:00etatik 14:30era. Aurten hamazazpi merkatarik hartuko dute parte: Klitz, Arauri, Casa Astigarraga, Ecenarro, Ene Bada, Ikus, G&M, Garate, Goiara, Ipintza, Iriondo Kirolak, Irudi, Luvik, Moma, Muruamendaraz, Nu-Van eta Sara. 11:30etik aurrera Txankakua elkarteko maskotak ere kalean ibiliko dira giroa janzteko, eta 14:00etan, 600 euro zozketatuko dituzte erosketa txeketan. Aste honetan Txankakuako komertzioetan erosketak egin dituztenek zozketarako boletoak jaso dituzte. Antolatzaileek esan dute saria eskuratzeko ezinbestekoa dela saritutako txartelaren jabea zozketaren unean bertan Maalan agertzea.

Juan Jose Ibarretxe eta Markel Olanok hitzaldia eskainiko dute urriaren 19an

Markel Olano Gipuzkoako Ahaldu Nagusiak eta Juan Jose Ibarretxe lehendakari ohiak hitzaldia eskainiko dute urriaren 19an, *Kultura da gakoa* izenburupean. Gipuzkoa eta Euskal Herriak munduan duten kokapenari buruz mintzatu dira, besteak beste. Herriko Antzokian izango da ekitaldia, 19:00etatik aurrera.



Ekintzaz beteriko asteburua izan dute Aiastian, San Migel jaietan

San Migel jaiak ospatu dituzte Aiaztia auzoan joan den asteburuan, eta ekintzaz beteriko asteburua izan dute. Haritz dantza taldeak Jose Inazio Sarasua omendu zuen barixakuko dantzaldian. Haren alargunak eta anaiak lore sorta jaso zuten. Aipatzekoa, era berean, Jose Antonio Arrillaga auzokideak irabazi zuela Arraza Libreko Artzai Txakur Txapelketa, *Txiki* txakurraekin, eta bolotan Migel Belaustegi izan zela onena, lau txirlo botata. Jone Uriak eta Nerea Ibartzabalek bertso saio "polita" eskaini zutela esan dute antolatzaileek. Domekan, berri, eguraldiak gehiegi la-



gundu ez bazuen ere, jende dezente bildu zen idi-demak ikusteko. Azkenik, domeka gauean, bat egin zuten antola-

tzaileek Espainiako Poliziaren oldarraldia salatu eta Kataluniari babesa erakusteko lapiko jotzarekin.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Kultur Etxe atzeko zubiko egur xafiak bere lekutik irtenda daude: "Kultur Etxe atzeko zubia egoera txarrean dago. Oso irristakorra da, egur xafia asko altxatuta daude eta erraza da bertan trabatzea. Lagun bat baino gehiago trabatu izan dira bertan. Aspalditik dago modu horretan, eta eskertuko genuke lehenbailehen konpontzea". Josu Arraiz Hirigintzako arduradunak esan du aztertzen ari direla zubi hori nola konpondu, baina ez duela konponbide erraza".



Txakur kakak jasotzearen behar dira: "Herriko kale asko txakur kakaz beteta egoten dira askotan. Azkena, gure auzoan aurkitu dugu aste honetan. Bi kaka mokordo handi zeuden bata bestearen segidan, gure atari aurreko espaloian. Kasualitatea, gainera, bi egunetan ez dugu argirik eduki ingurune horretan, eta ilunpetan kaka mokordoa zapaldu genuen hainbat bizilagunek. Txakur jabeei eskatu nahi diet mesedez euren txakurrek kaka egiten dutenean batzeko". Josu Arraiz Hirigintza arduradunak esan du Urazandi auzoko zonalde horretan arazoren bat dutela argiteriarekin, baina ez dutela oraindik arazoa aurkitu.



Kilimon erreka bazterreko landaretza asko hazi da: "Kilimo erreka landaretza oso hazita dago eta zikin itxura handia ematen dio horrek inguruari. Ez dakigu noren ardura den, baina eskertuko genuke inguru hori gehiago zaintzea, laster ez dugulako errekarik ikusi ere egingo".

Maltzagarako bide gorria oso ilun egoten da neguko arratsaldeetan: "Egun osoko lan jarduna dugun jende askok arratsalde-iluntzeetan edukitzen dugu paseatzera edo korrika egitera joateko aukera. Neguan oso goiz iluntzen du, eta askotan lanetik irteten garenerako ilun egoten da. Maltzagarako bide gorria joateko ohitura daukagu askok, baina batzuetan beldurra ere ematen du hara joateak, oso ilun egoten delako. Oso argi gutxi dago bidean, eta iruditzen zait horrelako bide polita izanik, argiztapen hobea merezi duela ingurune horrek. Lanean gaudenok ez daukagu egunez paseatzera joateko aukerarik, eta eskertuko genuke bide gorrian farola batzuk jartzeko". Josu Arraizek jakinarazi du Maltzagako bide gorria Foru Aldundiaren konpetentzia dela. Elgoibarko Udalak eskaera egin du bide gorrian komuna eta farolak jartzeko, baina momentuz ez omen dago horretarako asmorik.

Elizako arkupeetan txiza egiten dute txakurrek eta pertsonak: "Euria egiten duen egunetan elizako arkupeetan ibiltzen naiz askotan umeekin, eta oso usain txarra egoten da. Txakur askok txiza egiten dute han, eta behin baino gehiagotan pertsonaren bat ere ikusi izan dut txiza egiten. Errespetu apur bat eskatu nahiko nuke. Leku publikoak ez dira txiza egiteko".



“Pribilejiatu bat naiz
nire afiziotik
egin dudalako
nire lanbidea”

▶ JUAN CARLOS LARREATEGI

TXISTULARIA

Euskal Herriko Txistulari elkarteak 90 urte bete ditu eta joan zen asteburuan egin zuten ospakizun ekitaldia, Arraten. Egun horren harira, Juan Carlos Larreategi (Elgoibar, 1969) Elgoibarko txistularia ekarri dugu BARRENERA aste honetan. Kasualitatez hasi zen umetan txistua jotzen, baina badirudi bere neurrira egindako instrumentua dela txistua. Hasiera batean afizioa zena, ofizioa du gaur egun. Gasteizko Udalean lan egiten du, Folklore Akademan. Txistu irakaslea da, eta Gasteizko Txistulari Taldeko kidea ere bai. Horrez gain, Elgoibarko Udal Txistulari Bandan ere jotzen du. Juan Carlosek berak aitortu du hitzekin baino hobeto komunikatzen dela txistuarekin.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Noiz eta nola hasi zinen txistua jotzen?

Oso modu berezian hasi nintzen. Umetan, opor sa-soian, izebaren baserrira joaten nintzen, Mendarora. Adinak aurrera egin ahala, aspertu egiten nintzen han, lehengusuak ni baino nagusiagoak zirelako, eta etxera itzultzeko desiatzen egoten nintzen. Halako baten, izebak opari bat egin zidan. Mutrikura joaten zen azokara baserriko produktuak saltzera, eta egun haietako batean poxpolin bat ekarri zidan, opari. Etxera etorri nintzenean, gurasoek esan zidaten jotzen ikasi beharko nuela. 7 bat urte izango nituen. Garai hartan ez zegoen musika eskolarik Elgoibarren, eta Elgoibarko Izarran hasi nintzen txistu eskolak jasotzen. Antonio Azpiazu izan nuen irakasle, gero bere semea Anton, eta Jose Inazio Sarasua ere bai.

◆ Hasieran afizioa zena, ofizioa duzu gaur egun.

Gasteizko Udal Txistulari taldeko kidea naiz. 2004an hasi nintzen han lanean, eta 2007an oposizioak egin nituen. Orduan lortu nuen Udaleko funtzionario postua. Folklore Akademan egiten dut lan. Gure lanak bi alor ditu: irakaskuntza batetik, eta difusioa edo herriko ekintzak, bestetik. Beraz, txistu irakaslea izateaz gain, hiruburuko kalejira, inaugurazio, ezkontza eta beste hainbat ekitalditan hartzen dut parte. Eta horrez gain, urte pila bat daramatzat Elgoibarko Udal Txistulari bandan. Izebak poxpolin hura oparitu zidanean ez nuen berehalakoan pentsatuko honaino iritsiko nintzenik. Gorka Errezil elgoibartarrak animatu ninduen Gas-

“Jende gehiena jai giroan dagoenean guri lan egitea tokatzen zaigu, baina ni pozik”

teizko Udaleko lanpostura aurkeztera. Orduan ez zegoen autopistarik eta Gasteiz urruti ikusten nuenez, lehenengo aukerara ez nintzen aurkeztu. Bigarren lanpostu bat irten zenean berriz animatu ninduen, eta bigarren aukerara joatea erabaki nuen. Garikoitz Mendizabal txistulari zestoarrak utzitako postua betetzeko deialdia zen. Une honetan Euskal Herrian dagoen txistularirik onena da nire ustez Garikoitz. EAEko hiru hiriburuetakoa udal txistulari taldeetako kide izan da, eta orain, Bilboko txistulari bandako zuzendaria da. Gauzak ondo irten zitzaizkidan eta ni hartu ninduten haren lekua betetzeko. Horren aurretik, Arrasaten ere jardun nuen lanean. Goi mailako ikasketetako azken azterketan epaimahaiari zegoen Roberto Alvarez, hain justu ere orain nire nagusia dena. Arrasate Musicalen egiten zuen lan berak, eta uzteketan zegoen, Gasteizera joateko. Azterketan ikusi ninduen eta gustatu zitzaionez, nirekin jarri zen harremanetan bere lekua betetzeko. Eta Elgoibarren Aintzane Larreategiren ordezkapenen bat ere egin izan dut, eta Ondarrun ere ibili izan nintzen hiru bat urtez txistu irakasle.

◆ **Urtean zehar ekitaldi askotan hartzen duzue parte txistulariok, bai Gasteizen eta baita Elgoibarren ere. Zein da zuretzako bereziena?**

Gasteizen, Ama Birjina Zuriaren Eguna gustatzen zait gehien. Egun horretan goizean goiz hasten gara diana jotzen. 9:00etan irteten gara kalera musika bandarekin, eta gero Udal Korporazioarekin elizara joaten gara. Politikariak irteten direnean aurrerakia dantzatzen zaie eta guk jotzen dugu txistua. Sokadantzan ere hartzen dugu parte, eta txistulari alardea ere egun horretan izaten da. Egund potentzia izaten da. Elgoibarko ekitaldien artean ere San Bartolome Eguna da gehien gustatzen zaidana. Jende gehiena oporretan edo jai giroan dagoenean, guri lan egitea tokatzen zaigu, baina ni pozik. Jaiak bizitzeko beste modu bat da. Zapatuetan ere lan egiten dugu, ezkontza zibil asko izaten direlako Gasteizen, eta txistua jo behar izaten dugulako. San Joan ingurutik Santiagora arte izaten ditut oporrrak. Hor inguruan hasten gara Gasteizko jaietarako entseguak egiten, eta jaiak amaitu ostean, berehala sanbartolomeetarako entseguak hasten ditugu. Tarte hori aprobetxatzen dugu normalean oporretan joateko, baina, egia esan, oporretan joateko aukera gutxi izaten dugu. Aurten, gainera, nire emazteari opor egunak aldatu dizkiote eta ez gara inora joan. Beraz, Donostiako alardean joteko aprobetxatu dut. Egia esaten badut, Gasteizera ez joatea niretzako oporretan egotea da, nahiz eta txistua jo behar izan.

◆ **Txistuaz aparte, beste instrumenturen batzuk ere jo izan dituzu.**

Bai, tronpeta jotzen ibili nintzen sasoi batean. Ordurako Elgoibarren bazegoen musika eskola, eta laugarren mailara arte edo iritsi nintzen. Baina egun batean istripu txiki bat izan nuen. Txaranga jotzen nuen, eta Txiki Egund batean ezpaineako muskulu bat

apurtu zitzaidan. Hor bukatu zen tronpetako nire ibilbidea. Une gogorak bizi izan nituen, baina zorionez, hurrengo urtean txistuko goi mailako ikasketak hasteko aukera izan nuen Donostian, eta horrek asko lagundu zidan. Jose Inazio Ansorena ‘Piter’ izan nuen irakasle goi mailako ikasketetan. Irakasle zorrotza; oso zorrotza. Dena zuzentzen zidan klaseetan, beti egurra ematen zidan. Ez nekien zer egin gizon hura gustura egon zedin. Baina ikasketak amaitzeko azken azterketa egin nuenean sekulako besarkada eman zidan, eta zoriondu egin ninduen. Bikain kalifikazioarekin bukatu nituen ikasketak. Esan zidan kurtsuan zehar emandako egur guztia nire onerako izan zela eta nire bizitzan eskertuko nuela. Une hartatik beste lagun bat gehiago neukala esan zidan. Eta halaxe izan da. Pianoa jotzen ikastea gomendatu zidan, ikasleei laguntzeko oso ondo etorriko zitzaidalako. Eta haren gomendioa jarraituz, pianoa ikasten ere hasi nintzen, Elgoibarko musika eskolan, Susana Marcanorekin. Baina oso zaila egiten zitzaidan. Abesti batzuk oso ondo irteten zitzaizkidan, baina abesti berriak ikastea konplikatu iruditzen zitzaidan. Ezin nuen ulertu maila bereko piezak jotea zergatik kostatzen zitzaidan horrenbeste. Tronpetarekin edo txistuarekin behin maila bat hartuta, maila bereko piezak nahiko erraz jotzen nituen, baina pianoarekin ez nuen lortzen. Bosgarren mailan utzi nituen piano ikasketak.

◆ **Kalebarren plaza inguru honetan sarri entzuten dira zure txistuaren doinuak. Gasteizko lanorduez aparte, zenbat ordu eskaintzen dizkiozu txistuari egunero?**

Instrumentu bat ikasteko prozesua ez da inoiz amaitzen. Oso metodikoa eta konstantea izan behar zara. Ni saiatzen naiz egunero pare bat ordu sartzen. Etxekoak eurak ere harritu egiten dira oraindik txistuari eskaintzen diodan denbora guztia ikusita. Baina lana gustura egin ahal izateko ezinbestekoa da. Nik badakit zein den nire lana eta onartuta daukat beste batzuk makina batean zortzi ordu sartzen dituzten moduan, nik txistua jotzen sartu behar ditudala orduak. Baina pribilegiatu bat naiz, nire afiziotik egin dudalako nire lanbidea. Bi seme daukat, 14 eta 11 urtekoak, baina ez dute nire bidea jarraitu. Juleni oparitu nion poxpolin bat, izebak nirekin egin zuen bezala. Agian oraindik gazteegia izango zen, 4 bat urte edo izango zituen, eta ez zion txistu hari kasu handirik egin. Orain bi semeak perkusioa ikasten ari dira, Gorka Mujikarekin. Gustura dabilta, baina beti gainean egon behar dut. Niri gurasoek ez zidaten inoiz esaten ikasi egin behar nuela, berez irteten zitzaidan, eta askotan jolastorduan lokalera jaisten nintzen txistua jotera. Esaten zidaten batzuk gaixorik nengoela, baina hori zen nik nahi nuena. Nire semeekin ez dago horrelakorik, eta hori gertutik bizi dutela nire lanbidea! Ulertzen dut gaur egungo gizarte eta ni umea nintzenekoa desberdinak direla, eta gaur egun aukera askoz gehiago dutela. Kirola ere oso modan dago, eta horrek ere bere denbora behar du, eta egunak 24 ordu baino ez ditu.



◆ **Bizilagun edo herritarren batek esan al dizu inoiz zeozer zure txistuaren doinuak kaletik entzuten direlako?**

Ez zait inor kexatu inoiz. Lehen Aita Agirren geneukan lokala, eta orain kultur etxean daukagu. Hasi nintzen kultur etxera joaten entseguak egitera, baina han ere langileak daude, eta etxean jotea erosoagoa egiten zait. Bizilagunak ohituta daude, badakite nor naizen eta zein den nire lana, eta gustura entzuten nautela esaten didate. Ordugeiak errespetatzen ditut, eta ez dut arazorik izaten.

◆ **Euskal Herriko txistulari elkarteak 90 urte bete ditu, beraz, txistuak tradizio luzea duela esan dezakegu. Baina, gaur egun ba al dago txisturako zaletasunik?**

Gaur egungo hezkuntza legediarekin oso zaila da musikatik bizitzea, eta horrek jendea atzera botatzen du. Goi mailako ikasketak egiteko aukerak Donostiako Musikenen edo Iruñean bakarrik daude gaur egun. Gure garaian aukera gehigao zeuden, baina txistua ikastera gehienak Donostiara joaten ginen, *Piter* zegoelako irakasle. *Piter* oso garrantzitsua izan da txistularitzarentzat. Txistua instrumentu tradizionala izan da, baina musika eskoletan ez zegoen, eta berak sartu zuen. Musikenen aurten plaza bakarra egon da goi mailako txistu ikasketak egiteko; lotsagarria. Egoera horretan jendeari kostatu egiten zaio pauso hori ematea, baina gu bost irakasle gaude Gasteizen, eta ehun ikasle baino gehiago ditugu. Iruditzen zait Gasteizen euskalduntasunarekin lotzen dutela askok txistua, eta hango euskaldun jendeak beren seme-alabak txistuan apuntatzen dituztela, euskalduntasun bide horretan sartzeko.

◆ **Urte hasieran Jose Inazio Sarasua hil zen. Galera handia txistularitza eta folkloreatzat.**

Sekulako galera. Sarasua oso berezia zen, bai izakeran, bai musika sortzeko moduan, bai ekitaldiak antolatzerakoan... Izugarriko gaitasuna zeukan, gainera, sensibilitate desberdinetako jendea batzeko. Sekulako errespetua sortzen

“Asko ikasi dut Sarasuarengandik; niretzako erreferente izan da”

zuen, bai Elgoibarren eta baita hemendik kanpora ere. Nik lotura handia neukan berarekin, nolabait esateko, bere eskubiko eskua nintzen, bere pausoak jarraitu izan ditut, eta asko ikasi nuen berarengandik. Niretzako erreferentea izan da, eta uste dut gure artean bazegoela kimika bereziren bat. Galera handia izan da, benetan.

Ez dago inor hura ordezkatzeko modurik. Elgoibarko txistulari bandan izugarriko lana egiten zuen, eta esan didatenez, Euskal Herriko txistulari elkarteko idazkari postuan ere berak egin zituen urte gehien. Asko eman zion txistuari. Orain haren lanak banatu egin ditugu, ez dagoelako lan hura dena egingo duen beste pertsonarik. Ni egun batzuetan 22:00etan iristen naiz Gasteiztik, eta ezinezkoa zait haren papera betetzea. Ikaragarria zen haren dedikazioa. Profesionala izan gabe, profesional askok baino denbora gehiago eskaintzen zion txistuari. Elgoibarko Txistulari Bandan 14 bat gaude gaur egun. Elgoibarren ez gara profesionalak. Udalak diru-laguntza ematen digu, eta beste herri askotan baino hobeto gaude. Elgoibarrek badauka zerbaitekin eta Udala asko inplikatu da musikan. Musika Eskola sortzeak ere asko lagundu du.

◆ **Aurrerantzean zein proiektu dituzu eskuartean?**

Ditudan lanak ondo betetzea da nire helburua, eta nire lanean konpetente izatea. Orain, adibidez, nire txistu ikasle bat goi mailako ikasketetan sartzea lortu dut, eta horrek poza ematen du. Tronpeta eta txistua jotzen ditu, baina txistuarekin oso ondo moldatzen zela ikusten nuen. Umetatik galdetu izan diot ea zein instrumenturekin moldatzen den bera hobeto, txistuarekin ala tronpetarekin, eta beti esaten zidan biek berdin moldatzen zela. Atera nuen goi mailako ikasketak egiteko behar zen dokumentazioa, eta galdetu nion ea aurkeztuko ote ginen, eta esan zidan tronpetarekin jarraitzeko asmoa zeukala. Baina nolakoak diren gauzak! Tronpetarekin ez zuen lortu goi mailako ikasketetan sartzea eta txistuarekin bai. Iruñean ari da ikasketak egiten, eta oso eskertuta dago.




I. URTEURRENA

Pauli Astigarraga Arozena

2016ko urriaren 12an hil zen, 96 urte zituela.

**Oinez erakutsi zenigun
eta bide bakoitzerako
zapata-pare bat eman.
Orain gure urratsetan zaude.
Betiko.**

Etxekoak



Florencio Gorriti Aguirre

2016ko urriaren 6an hil zen.

I. urteurreneko meza 2017ko urriaren 14an izango da.

*"Jainkoari eskatu diot indarra, arrakasta lortzeko; eta ahul egin nau, obeditzen ikasteko.
Aberastasuna eskatu diot, zoriontsu izateko; eta pobre egin nau, zuhur izateko.
Lagun bat eskatu, bakarrik ez bizitzeko; eta bihotza eman dit, hurkoa maitatzeko.
Gauza guztiak eskatu dizkiot, biziaz gozatzeko; eta bizi ukan dut, gauza guztiez gozatzeko.
Eskatu nuenetik deus ez dut ukan; baina espero nuen guztia eman zait"*


I. URTEURRENA

Lurdes Iriondo Gurrutxaga

2016ko urriaren 7an hil zen, 77 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urriak 7, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz parrokan.
Joango zaretenoi eskerrak alde zaurretik.

**Izar disdiratsua zara
gure bihotzetan.
Zure kemena eta maitasuna
daramagu barren-barrenean.
Maite zaitugu.**





Aitor Nova (irakaslea), Marcos Rodriguez, Iker Gil, Joseba Astigarraga, Josu Leniz, eta Noemi Araujo goian, eta behean, Josu Figueiredo eta Unai Eguren.

► Guggenheim museoaren 20. urtemugako ikuskizunean parte hartuko dute Elgoibarko zortzi saxofoi jotzailek

Elgoibarko Musika Eskolako zortzi saxofoi jotzailek Bilboko Guggenheim museoaren 20. urteurreneko *Chasmata* ikuskizun berezian parte hartuko dute astelehenean, urriaren 9an. Artea eta zientzia modu berri batean uztartzen dituen ikuskizuna da *Chasmata*. Ikuskizun horretan Euskal Herri osoko 100 bat saxofoi jotzailek parte hartuko dute eta Marteko inoiz ikusi gabeko irudiak emango ditu ESA Europako Espazio Agentziak. Era berean, Pedro Duque astronauta ezagunak Nazioarteko Espazio Estaziotik datorren mezu bat irakurriko du eta Juan Ignacio Bidarte Bilboko Guggenheimeko zuzendariak 20. urtemugako programa aurkeztuko du. Ilusioz hartu dute Elgoibarko Musika Eskolako ikasleek ekitaldian parte hartzeko gonbidapena. Entseguak egin dituzte, eta go-

gotso daude egun handirako, Aitor Nova irakasleak aitortu duenez.

Chasmata ikuskizunean eskua emanda doaz arte garaikidea eta kanpo-espazioa, astrogeologia, musika instrumentala, musika elektronikoa eta arte bisualaren bidez. Saxofoi-doinuak eta teknologia berriak uztartzen ditu, eta hala, Guggenheimeko atrioko garaiera desberdinetan banatuta gailu elektronikoekin elkarrekintzan arituko dira saxofoi jotzaileak. Sei pieza entzun ahal izango dira, denak ere propio ikuskizun honetarako sortutakoak, eta elgoibartarrek azkeneko pieza joko dute, *Valles Marineris* izenekoa. Elgoibarko ordezkarietz gain, Bizkaiko 50 saxofoi ikasle, Gipuzkoako 23k eta Arabako 24 ikasle parte hartuko dute, baina era berean, Europan itzal handia duten musi-

kariak ere ariko dira zuzenean: Sigma Project Quartet, Het Nederlands Saxofoon Octet eta Iñigo Ibaibarriaga, barlarari gisa. [Programa osoa: <https://xx.guggenheim-bilbao.eus/eu/>]. Era berean, publikoak ere parte hartuko du ikuskizunean, aurrez nork bere smartphone-ean deskargatutako aplikazioaren bidez.

“Ez dakit garbi zer izango den, guk parte musikala bakarrik ikusi dugulako entsegutan, baina ikusgarria izango da seguru. Zuriz jantzita ariko gara, eta gure gorputzetan irudiak proiektatuko dituzte”, esan du Novak. Ikuskizuna doan izango da, eta aretoa bete egingo da. Izan ere, 700 gonbidapen zituzten banatzekoak antolatzaileek eta ordubetean agortu ziren guztiak.

Kultura da gakoa Gipuzkoa eta Euskadi munduan



Markel Olano
Gipuzkoako Diputatu Nagusia



Juan Jose Ibarretxe
Lehendakari ohia

Herriko Antzokia
Elgoibar
Urriak 19, osteguna
19:00etan



“Goierriko Ampo taldearekin arituko naiz afizionatuetan”

▶ IMANOL ALVAREZ

AMPO TALDEKO TXIRRINDULARIA

Ordenagailu aurrean ez dagoeneta bizikleta gainean dago. Imanol Alvarezek (Elgoibar, 1999) txirrindularitza eta bideo jokoak bizi ditu, eta horiei eskaintzen die denbora librea. Aurrerantzean, baina, bata zein bestea afizioa baino zerbait gehiago izango dira. Bideo jokoak sortu eta programatzeko ikasketak hasi ditu Iruñean eta afizionatuetan debuta egingo du Goierriko Ampo taldearekin. Ordenagailu aurreko eserialdiak bizikleta gainekoekin uztartuz jarraituko du nafar lurretan.

- ASIER ORBEA -



♦ Juniorretako azken urtea bete duzu aurten. Nolakoa izan da denboraldia?

Oso ona. Eibarren korritu genuen lehenengo lasterketatik sentsazio onekin aritu naiz eta emaitzekin ere gustura nago. Hamargarren egin nuen lehen lasterketan eta urte osoan eutsi diot erregularitasun horri, lehen hamarretan behin baino gehiagotan sailkatuz. Duela hiru aste Ibarren lortu nuen garaipena tartari ginda jarzaren parekoa izan zen. Denboraldiko azkenaurreko lasterketa zen gainera.

♦ Kontaiguzu nolakoa izan zen Ibarren irabazi zenuen proba?

Garaipena lortu aurretik ere berezia

izan zen, estreinakoz nire anaia gazteagoarekin, Josurekin, parte hartu nuelako lasterketa batean. Ni baino bi urte gazteagoa da, eta denboraldiko azken lasterketan maila bat gorakoekin lehiatzen lagatzen diete, hurrengo urtean dator-

“Euskal talde batekin profesionalera pasatzea da nire ametsa”

kiena ezagutzeko. Eguraldi nahiko txarra egin zuen eta bi motok, Ertzainarena bata eta antolakuntzakoa bestea, istripua izan zuten Lizartzara bidean. Lasterketa neutralizatu zuten orduerdi inguruan, eta berriz hasi ginenean dozena bat laguneko ihesaldian sartu nintzen. Taldeko horretan jende ona zegoela ikusi arren, garaipenagatik lehiatzeko aukera nuela banekien. Alizo eta Leaburuko gainak pasatu ostean, bost lagunera murriztu zen taldea. Hala, azken portuaren gainera ailegatzeko 300 bat metroren faltan dena ematera joan nintzen eta bost segundoko aldea lortu nuen mendate gainean, eta helmugan 12



© Martin Early



segunduko aldea atera nion bigarrenari. Amestutako garaipena izan zen, mendatean ihes egin eta bakarrik ailegatu nintzelako ihesean. Negar batean gurutzatu nuen helmuga.

♦ Orain dela urte batzuk ohituagoa zeunden lasterketak irabaztera, ezta?

Bai, infantiletan hamar lasterketa irabazi nituen denboraldi berean. Harrezkero, baina, garaipenik lortu gabe nengo. Ibarren eman nion amaiera lau urteko lehorteari. Gainera, banekien aurten goa zela garaipen bat eskuratzeko izan nezakeen azken urtea, eta aprobe txatu nahi nuen.

♦ Gainerakoengandik nabarmendu den txirrindulari dominatzailearik egon da zuen adinean?

Bi izen aipatuko nituzke, Ibarrek Unai Iribarrek hamabost bat lasterketa irabazi ditu, eta beste horrenbeste garaipen lortu ditu Oier Lazkano arabarrak. Bi horien parera ailegatzeko borrokan aritu diren hamar bat txirrindulariko multzoan egon naiz ni.

♦ Junior izateari laga ostean, afizionatuetan lehiatzeko aukera izango duzu.

Bai, joan den irailaren 29an sinatu nuen bi urterako kontratua Goierriko Ampo taldearekin. Hainbat txirrindulari jarraitzen dituzte eta horien artean nengoela esan zidaten. Gipuzkoan hiru talde daude afizionatuetan (Ampo, Eulen eta Eibar), eta txirrindulari gipuzkoarrok lehen urtean Gipuzkoako talde batean korritzera behartuta gaude.

♦ Hortaz, afizionatu mailako talde batean lekua egitea ez da erraza izango?

Ez, talde bakoitzak hogeitaz bat txirrindularientzako lekua duelako, eta hortaz, gutxi dira juniorretatik jauzia ematen dutenak. Ampon taldekide izango dut Unai Iribar. Aurten Elgoibarren taldekide izan dudana Jon Astigarraga eibartarra, berriz, Zarauzko Eulen taldearekin arituko da.

♦ Ze itxaropen duzu afizionatutarako?

Ziur taldeko liderrentzako lan egin beharko dudala. Hori da hasiberriei tokatzen zaiguna, aparteko txirrindularia zarela erakusten ez baduzu, behintzat. Jokin Aranburu edo Unai Orbea moduko txirrindulari oso onak ditugu taldean. Ni baino bi edo hiru urte zaharragoak dira. Lehen urtean taldera egitea, kategoria berrira ohitzea, izango da nire helburua. Bigarren urtean pixka bat gehiago eskatuko digutela suposatzen dut.

♦ Ze lasterketetan lehiatuko zara?

Euskal Herrian Lehendakari Saria eta Euskaldun saria daude. Batzuetan Frantziara ere joaten gara, eta Espainiako Kopako probetara gehien nabarmentzen direnak joaten dira, esperientzia handiena dutenak.

♦ Entrenamenduak asko aldatuko dira.

Iraupen handiagokoak izango dira entrenamendu zein lasterketak, aurten egin ditugun kilometro kopuruaren bikotza edo. Denboraldi honetan 8.000 bat kilometro egingo nituen. 80-90 kilometroko lasterketak korritzetik 120 kilometrokoak egitera

pasatuko gara. Deba, Zumaia, Azpeitia inguruan ibili izan naiz orain arte entrenatzen, baina orain Iruñea inguruko errepideetan entrenatu beharko dut.

♦ San Pedroko igoeran parte hartzeko asmorik baduzu?

Igual bai. Bizikleta hartu gabe hiru aste daramatzadala da okerrera, irailan denboraldia amaitu genuenetik.

♦ Irabazteko gai ikusten duzu zure burua?

Orain momentuan ez. Eta iazko irabazlea baldin badator are gutxiago, Alberto Contadorren Contador Fundazioan baitago. Etorkizun handiko txirrindularia izan daitekeela esan nahi du horrek.

♦ Txirrindulari moduan zein dira zure dohainak?

Aldapan gora ondo moldatzen naiz, eskalatzailer onenen parera ailegatzeko ez banaiz ere. Talde txikiak esprintetan ere ondo moldatzen naiz, esprinterra izan gabe azkarra naizelako.

♦ Nola ikusten duzu etorkizuna?

Kontinental mailan diharduen Euskadi-Murias taldeari batu zaio orain Euskadi Fundazioa, eta profesionaletara iristeko ateak irekiago ditugula esan nahi du horrek. Itxaropen eta aukera gehiago dago orain urte batzuk zegoen egoerarekin alderatuta. Nik ezagutzen ditudan txirrindulari askok egin dute profesionaletarako jauzia. Nire ametsa hori litzateke, euskal talde batekin profesionaletara pasatzea, eta gero... datorrela datorrena.

Ander Zulaikak irabazi du Picos de la Demanda ultratraila, Ezkarain

Demanda mendilerroan, Errioxan, jokatu zuten Picos de la Demanda mendi lasterketaren hirugarren edizioa, irailaren 30ean. Ezkarain hasi eta bukatzen zen proba, eta 47 kilometroko ibilbidean San Lorenzo mendiko tontorretik (2.270 metro) pasa behar zuten parte hartzaileek. Hamazortzigarren kilometrorako hiru lagunek hartu zuten aurrea, Roberto Merinok, Jesus Hercek eta Ander Zulaika mendarorak. Lizarpe LMK taldeko antxitikariak, baina, erritmoa bizit- zuen eta bakarrik gelditu zen lasterketa buruan. Zulaikak bost ordu, bi minutu eta 41 segundoan osatu zuen proba. Merinok egin zuen bigarren (5:09.36) eta Herce errioxarrak hirugarren (5:28.27).



Elgoibarko Enduroa, domekan

Urnobitza Kirol Klubak 10. Elgoibarko Enduroa antolatu du domekarako (urriak 8). Euskadi eta Nafarroako txapelketetarako puntuagarria izango da eta 120 gidari inguruk parte hartzea espero dute antolatzaileek, tartean Urnobitzako hogeita pilotu inguruk. Mintxetako aparkalekutik abiatuko dira pilotuak 9:30ean, eta 30 kilometro inguruko ibilbidea egin beharko dute. Erlojuaren aurkako zatia ere izango du probak. Mintxeta kirolgunearen atzeko zelaietan egongo da zirkuitua.



San Pedroko igoera, urriaren 12an

Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari elkarteak antolatuta, zikloturistentzako Julian San Juanen Oroimenezko 26. San Pedroko igoera jokatu dute eguenean, urriaren 12an. Txirrindulariak 12:00etan irtengo dira Kalegoen plazatik. Iaz 53 lagunek parte hartu zuten eta errekorren urtea izan zen, Iker Eskibeleg (Eskoriatza, 1993) hamahiru minutu eta 20 segundoan igo zuelako, eta honenbestez, segundo batean ondu zuelako Iñigo Larizek 2002an ezarri zuen marka. Emakumezkoetan ere, garai-penaz gainera errekorra ezarri zuen (17:22) Maite Maiora mendarorak.



Anbotoko kilometro bertikaleko hirugarren postuak Elgoibarrera



Euskal Herriko igoera bertikaletan erreferente nagusia den Anbotoko Kilometro Bertikalaren hamargarren edizioa jokatu zuten aurreko zapatuan, eta Mendi Lasterketa Bertikalen Euskal Herriko Txapelketa ere izan zen aurtengoa. 300 korrikalarik parte hartu zuten 3,8 kilometroko eta 1.092 metroko desnibel positiboa duen lasterketan. Gizonezkoetan Aitor Osa itziartarrak jarraian lortzen duen laugarren garaipena eskuratu zuen, 40 minutu eta 22 segundoko denbora eginda. Bigarren posturako lehia estua izan zuten Iñigo Lariz elgoibartarrak eta Imanol Goñik. Minutu bateko aldea atera zion helmugan Goñik (40.59) Larizi (42.01). Emakumezkoetan, Oihana Azkorbebeitia abadiñarra izan zen 50 minututik jaitsi zen bakarra: 48.53. Maria Zorrozak (50.53) egin zuen bigarren eta Ainhoa Lendinez (53.47) elgoibartarra sailkatu zen hirugarren postuan. Aspaldian jokatu duen lasterketa "onena" egin zuela azaldu du Lendinezek. Ibilbidean zegoen lokatzak proba asko zaildu zuela ere gaineratu duen.

Calasancio txapelketa irabazi du Sanloko infantil mutilen taldeak Errioxan



Sanlo eskubaloi taldeko infantil mutilen zein nesken taldeek Calasancio Txapelketa jokatu zuten asteburuan, Errioxan. Hotel Txarriduna taldeko mutilek irabazi zuten txapelketa Calasancio etxeko taldearen kontra final lehiatua jokatuta. Nesketan, Modeltek eta Bacalaos Alcorta taldeetako jokalariekin osatutako Elgoibarko taldeak laugarren postua eskuratu zuen.

Bankoa-DV Pilota Txapelketako partidak Elgoibarren

Afizionatutako pilotaririk onenak batzen dituen XXVI. Bankoa Credit Agricole - El Diario Vasco binakako pilota txapelketako partidak hartuko ditu Ikastolako frontoiak. Urriaren 11n, eguaztena, izango da, 22:00etan. Promesetan Karregal eta E. Etxeberriak Osaren eta Apeztearen aurka jokatuko dute. Nagusien partidari, berriz, A. Etxeberriak eta Otadyk osatutako bikoteak Salaberrriak eta O. Etxeberriak osatutakoaren aurka jokatuko du. Irailean hasi zen txapelketa Getarian eta hainbat herritan jokatuko dituzte txapelketako partidak. Finala Zumarragan jokatuko da abenduaren 23an.

Ikasturteko lehen mendi irteeran Urbian izan ziren Elgoibarko eskola umeak



Morkaiko mendi taldeak Elgoibar Ikastolarekin eta Herri Eskolarekin elkarlanean antolatzen dituen mendi irteeren ikasturte berria hasi zuten aurreko domekan. Aloña mendira (1298 metro) igotzeko asmoa bazuten ere, eguraldiak ez zien lagundu eta Arantzazutik Urbiana igotzea erabaki zuten. 70 lagun inguruk parte hartu zuten irteeran. Hurrengo irteera mikologiarekin lotuta egongo da, eta azaroaren 5ean izango da. Ikastetxeetan eman beharko da izena.

FIFAk kalitate ziurtagiria lortu du Mintxetako berdeguneak

FIFA Nazioarteko Futbol Federazioak homologatutako laborategi independente batek egindako test guztiak gaitu eta gero, FIFAK ematen duen kalitate ziurtagiri gorenari lortu du Mintxetako futbol zelai artifizialak: FIFA Quality Pro. Joan den uztailan inauguratu zuten berdegune berria. Elgoibarko Udalak 230.000 euro inguruko inbertsioa egin du.



Tenis jaialdia, zapatuan

Olaizaga kiroldegiko kan txan egingo duten Tenis Jaialdiarekin hasiko da bihar (urriak 7) Elgoibarko Eskola Kirola egitas-moko denboraldi berria. 10:30ean hasiko da tenis jaialdia. Aurten 435 hurrek (294 mutil eta 141 neska) eman dute izena Eskola Kirolan: aurrebenjaminetan 111 eta benjaminalebin mailatan 324. Guztira pasa den urtean baino 20 haur gehiago.

Euskara generoaren ikuspuntutik aztertuko du Amelia Barquinek hilaren 18an



Uxue Alberdi eta Mari Luz Esteban urriaren 4ko saioan.

Uxue Alberdi bertsolari eta idazleak Mari Luz Esteban antoprologoari egindako zuzeneko elkarrizketarekin hasi zuten urriaren 4an *Euskalgintza eta feminismoa eskutik helduta* zikloa, Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Elgoibarko Udaleko Euskara eta Berdintasun Sailek elkarlanean antolatutako zikloa, eta urriaren 18an, izango da hurrengo saioa. Amelia Barquin Huheziko irakaslea gonbidatu dute ordurako eta gaia ere jarri diote: *Euskara generoaren ikuspuntutik*. Kultur Etxeko hitzaldi-gelan izango da hitzaldi hori ere, 19:00etan.

Feminismoa, euskalgintzarako gogoeta-tresna?

Ane Beitia alkatearen eta Ane Odria Elgoibarko Izarrako bazkidearen aurkezpen banarekin hasi zen urriaren 4ko ekitaldia, eta feminismoaren eta euskalgintzaren arteko sinergia posibleez, bi mugimenduen arteko harremanez eta batak bestearengandik ikas dezaketenaz galdetu zion ondoren Uxue Alberdik Mari Luz Estebani ohiko duen zorrotasunez. Angela Davis pentsalari feministak teorizatutako zapalkuntza hirukoitzaz ere aritu ziren, generoa, hizkuntza eta klase soziala gurutzatzen direnean sortzen denaz, eta baita diskurtsoen eraberritzeaz eta etorkizuneko kezka eta erronkez ere.

Ingelesa, frantsesa eta alemana lantzeko mintzapraktikak Elgoibarren

Elgoibarko Gotzon Garate udal liburutegiak jakinarazi du aurten ere antolatu dituztela ingelesa, frantsesa eta alemana lantzeko mintzapraktikak. Saiok dinamizatzaile batek zuzenduko ditu eta berak jarriko ditu mintzapraktikako gaiak. 16 urtez gorakoentzako mintzapraktikak dira, eta interesatuek liburutegian bertan eman behar dute izena urriaren 2tik 11ra. Inprimaki bat bete beharko da horretarako. Antolatzaileek zehaztu dute ez direla hizkuntza ikasteko eskolak izango, baizik eta aukeratutako hizkuntza giro lasai batean erabiltzeko gunea.

Uxue Alberdik urriaren 19an aurkeztuko du Elgoibarren bere azken lana: 'Jenisjoplin'

Uxue Alberdi Estibaritz idazle elgoibartarrak gaur du aurkeztekoa Donostiako liburutegiko sotoan nobela berria: *Jenisjoplin*. Dagoeneko liburu dendetan salgai daukatzue liburua, hala ere, eta urriaren 19an, aurkezpen berezia egingo du Elgoibarren, Pitzintxun. Unai Villena eta Iban Urizar *Amorante* izango ditu lagun aurkezpen ekitaldi horretan. 19:00etan hasiko da.

Nagore Vargas da *Jenisjoplin* nobelako protagonista eta kontalaria, baldintza makurrei aurre eginez zaildutako neska, gaztaroa intentsitate handiz bizi izan dutenen grinarekin borrokatzera ohitutakoa

Nerea Sasiain hirugarren sailkatu da Euskadiko Soinu Zahar Txapelketan

Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako Nerea Sasiain dantzariak hirugarren egin zuen zapatuan Euskadiko Soinu Zahar Txapelketan. Pasai Antxon jokatu zen txapelketa eta Sasiainekin batera Gaizka Uranga ere aritu zen Elgoibar ordezkatzan, Gipuzkoako Aurreku Txapelketan. Uranga izan zen lehiatu ziren gizonetako gazteena, eta ozta-ozta ez zen sailkatu onenen artean. Uda osoan egon dira txapelketa honetarako entsegatzen dantzariak.



Errosarioko Ama Birjinaren aldeko ezpatada-dantza egingo dute bihar eguerdian Haritz Euskal Dantzari Taldekoek

Errosarioko Ama Birjinaren eguna da bihar, urriaren 7a, eta Errosario kalean jairik izango ez den arren, Haritz Euskal Dantzari taldekoek urteroko tradizioari eutsiko diote eta Errosarioko amaren aldeko ezpata-dantza dantzatuko dute meza ostean. 12:00etan izango da meza nagusia Elgoibarko parrokian, eta ondoren, irtengo dira dantzariak kalera, segizioarekin batera. Parrokian hasi eta San Franzisko kaletik eta Errosario kaletik pasata, plazan amaituko dute ibilbidea. Bidean, hiru geldialdi egingo dituzte: Kultur Etxe aurrean, Errosarioko Ama Birjinaren parean, eta Kalegoen plazan.



'Motxilaren umea' emango dute Elgoibarren, presoen sakabanaketaren gaia landu duen filma



Hogeita bi minutuko film laburra da *Motxilaren umea* eta euskal presoen sakabanaketaren gaia lantzen du. Film pedagogikoa da, haurrentzat zuzendutakoa. Rita Naveirak (Barakaldo, 1974) zuzendu du eta helburu garbia du: gainerako hurrek enpatiaren bidez ulertzea gurasoren bat urrun duten hurrek bizi duten egoera. Elgoibarko Sarek antolatu du emanaldia eta Musika Eskolako auditoriumean izango da, urriaren 20an, 19:30ean. Dokumentala janzteko Imanol Iparragirre preso izandakoa gonbidatu dute ekitaldira. Bizipen pertsonalak kontatuko ditu Iparragirrek. Espetxean zela izan zen Imanol aita, eta bere bi semeek eta eurek egoera hura nola bizi izan zuten kontatuko du. Dokumental honekin gai hau eskoletan lantzea nahi dute dokumentalaren sustatzaileek, Kurkuluxetan kultur elkartekoek.

Daniel Sanchez argazkilaria iruindarraren lanen erakusketa jarri dute Elgoibarren

Daniel Sanchez (Iruñea, 1974) argazkilariren lanekin erakusketa osatu dute Ongarri Argazkilaritza Taldeak eta Elgoibarko Kultura Sailak, eta gaurtik hilaren 21era izango duzue ikusteko aukera Elgoibarko Kultur Etxean, astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era (jaiegunetan itxita egongo da). Argazkilaria amateur gisa hasi zen Daniel Sanchez, 2005. urtean, eta urtebeteko epean *hodarifotoblog.com* domeinua sortu zuen, bere argazkiak erakusteko. 2009. urtetik aurrera, Carlos Canovasekin jardun zen ar-



gazkilaritzan trebatzen eta ordutik hainbat lekutan izan ditu ikusgai bere lanak, besteak beste Tiranan (Albania), Meldoilan (Italia), Zarautzeko Torre Luzean eta Zizur

Nagusian, egun bera bizi den herrian. Elgoibarko erakusketa gaur 19:30ean zabalduko dute, eta aurkezpenean izango da argazkilaria bera ere.

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, astezkenetan eta ostiraletan. ☎ 684 318 696

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Arratsaldez edo gauzez. Erreferentziak ditut. ☎ 646 821 678

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 686 077 316

Umeak edo adinekoak zainduko nituzke, orduka edo interna moduan. ☎ 632 061 103

Adinekoak zainduko nituzke, gauzez. ☎ 632 733 573

Adinekoak zainduko nituzke, orduka nahiz interna. ☎ 632 292 690

Garbiketa lanak egin edo adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. ☎ 662 041 526

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat nagusiak zaintzen eta sukaldari laguntzaile lanetan. ☎ 631 827 339

Langile elgoibartar eta euskaldunak elkarte eta txokoen garbiketarako egiteko eskaintzen gara. Esperientzia daukagu. ☎ 626 490 986

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. ☎ 637 102 725 / 943 744 033

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke, orduka edo interna. ☎ 632 436 462

Adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 632 410 561

Ingelesa. Etxez etxeko klaseak eta maila guztietan. Irakasle tituluduna. ☎ 680 319 002

Garbiketarako egiteko prest nago, orduka. Nagusiak ere zainduko nituzke, orduka edo asteburuetan. ☎ 657 831 093

Lanerako prest nago, orduka, asteburuetan edo gauzez. ☎ 629 872 270

Lanerako prest nago. Orduka edo interna. ☎ 688 718 853

Adinekoak zaintzeko prest nago. Erreferentzia onak ditut. ☎ 631 343 232

Umeak zaintzeko eta eskolako lanekin laguntzeko prest nago. Euskalduna. Titulua eta esperientzia ditut. ☎ 688 639 371

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka edo interna. ☎ 646 821 678

Adinekoak zainduko nituzke gauzez. ☎ 602 490 595

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka zein interna. ☎ 602 818 849

Tabernan edo adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Esperientzia handia. ☎ 600 319 516

Altzariak konpondu, lurrean parketa jarri edo barniza ematen dut. Esperientzia handia. ☎ 635 005 536

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, orduka edo interna moduan. Erreferentziak ditut. ☎ 689 571 882

Eskaerak

Neska euskalduna behar da astelehene-tik ostiralera haurrak zaintzeko, 7:30etik 9:00etara. ☎ 690 362 464

Bi umeri klase partikularrik emateko pertsona behar da, Mendaron. Fisika, kimika eta matematika. ☎ 616 887 813

Urkundek elektrizitate teknikorako langilea behar du, produkzio eremurako. Beharrezkoa da profesionaltasun elektrikoaren ziurtagiria, ertain edo goi mailakoa. Bidali CV-a e-posta honetara: urkunde@urkunde.es

ETXEBIZITZAK.....

Apartamentu bat alokatzen dut, San Roke kalean. Logela bakarrekoa. Pertsona bakarra edo bikote batentzat aproposa. ☎ 679 866 923

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 677 259 560

Pisu txikia alokatuko nuke, edo bestela etxea konpartitu. ☎ 600 383 157

3 gelatako pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 602 490 595

Pisua salgai Ermuaranbide 10ean. Berrieta, altzariekin. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio negoziagarria. ☎ 943 743 197

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 626 329 979

BESTELAKOAK.....

Ezkontza eraztuna galdu dut Maala inguruan. Balio sentimental handia du. Secundina jartzen du, ezkontza dataren ondoan. ☎ 638 072 012

Lursaila salgai Urruzuno auzoan. 800 m², fruitu-erbolak eta txokotxabolarekin. ☎ 669 683 351

OSPAKIZUNAK.....

77an jaiotakoan bazkaria urriaren 21ean Belaustegi Baserrian. Urriaren 13a baino lehenago 60 euro sartu behar dira ondorengo kontu zenbakian: ES73 3035 007 2100 71134422 (Laboral Kutxa)

administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Enplegu Administrazioaren
Ikastetxeak



**ROSA Mª
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Jabetza eskrituran agertzen da gastu komunak partaide kuotaren arabera ordaindu behar direla. Gure komunitatean, baina, gastu horiek denon artean ordaindu izan ditugu behin edo behin, denok kopuru berean. Konponketa bat egitea onartu dugu orain, eta jakin nahiko nuke ea kopuru berean erantzun beharko geniokeen denok gastu horri beste noizbait egin izan dugun bezala edo zehazterik eta mugatzerik ba ote dagoen noiz ordaindu behar diren gastuok partaide kuotaren arabera eta noiz ordaindu ditzakegun denok kopuru berean.

Komunitateko gastu komunak eratze tituluan edo estatutuetan zehaztutakoaren arabera edo batzarrean ahobatez onartu bezala ordaindu behar dira, eta noizbait denok kopuru beretan ordaindu baduzue ere gastu hori, partaide kuotaren arabera egin behar dela zehaztuta baldin badago, hala egin beharko da beti, batzarrean ahobatez beste zerbaitek adostu ez bada behinik behin. Ezin da ordainketetarako bi sistema ezarri. Edo partaide kuotaren arabera ordaintzen dira gastuak edo denok kopuru berean. Legeak dio eraikina egoera onean mantentzeko egin beharreko gastuak nahiz zerbitzu komunak ordaintzeko egin beharreko gastuak ordaintzea jabeakide guztien betebeharra dela. Hori bai, gastu horiek nola ordaindu behar diren argi eta garbi zehaztuta egon beharko da beti.

AHOLKUA: Gastuen gaineko lege-presuntzioak dio eratze tituluetan ezer zehazten ez denetan gastu komunak partaide kuotaren arabera ordaindu beharko direla, eta hori aldatu nahi bada, jabeakideen batzarrean aztertu beharko dela gaia eta ahobatez onartu aldatzea.



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali. Pilarika Eguneko jai-zubia dela eta, urriaren 13an ez dugu BARREN kaleratuko. Hurrengo alea, urriaren 20an jasoko duzue.



Zorionak, **Iker**, igandean 10 urte egin zenituelako. Familia osoaren partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Aimar**, igandean 8 urte beteko dituzulako. Ondo-ondo pasa! Familia osoaren partez.




Zorionak, **Jon**, gaur 11 urte egin dituzu! Zorionak eta patxo handi bat familiakoena eta bereziki, Maialenen partez.



Zorionak, **Alain**, igandean 4 urte egingo dituzulako. Etxekoena, eta bereziki, Naroa, Enai eta Julenen partez.



Zorionak, **Manex**, zure 6. urtebetetzean. Patxo handi bat etxekoena partez.



Zorionak, **Mikel**, astartean 3 urte egin zenituelako. Familiakoena eta bereziki, Maialenen partez.



Zorionak, **Elene**, irailaren 27an 7 urte bete zenituelako. Muxu potolo bat familia osoaren partez.



Zorionak **Asier!** Gure mutil haundixak 4 urte! Ondo pasa! Muxu handi bat danon partez.



Zorionak, **Karim**, zure hirugarren urtebetetzean. Ondo pasa! Muxu bat amaxoren, Maialenen eta aittitaren partez.



Zorionak, **Malen**, gaur 5 urte egin dituzulako. Muxu handi bat familiakoena partez.



Zorionak, **bikote**, zuen ezkontza egunean! Askok gozatu eta aurrerantzean ere zoriontsu izan! Lagunen eta familiakoena partez.




Zorionak, **Aitor eta Zelai**, hilaren 5ean eta 7an zuen urtebetetzeak izan direlako.



Zorionak, **bikote!** Eskerrik asko hain egun polita eskaini izanagatik. Etxeko denon partez.



Zorionak **Leire**, atzo 7 urte egin zenituelako. Patxo handi bat familiakoena eta bereziki, Ibaireren partez.



Zorionak, **Jairo**, gaur 7 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoena partez. Ondo pasa!



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

NAFARROA OINEZ 2017

LESACA

Urriak 15, igandea

Autobusa antolatu dugu
Lesakako Tantarumairu
ikastolari laguntzeko. *bikin bat in*

- Irteera: 09:30 (Sigmako autobus-geltokia)
- Itzulera: 19:30
- Prezioa: 12 euro (Elgoibarko Izarrako bazkideek 10)

Autobusean joateko izena Elgoibarko Izarran eman behar da. Azken eguna: urriaren 10a. (autobusa irtetzeko gutxieneko kopurua 30 pertsona)

Antolatzailea:



Babeslea:



PAPERA
artisans erara egiteko
egun bateko ikastaroa



prezioa: 8€

Urriaren 28an, larunbata
10:00-14:00 eta 16:00-19:00

Egur

Laguntzaileak



6 BARIXAKUA

18:30 Argazki erakusketa: *Mundo compartmentado*. Ongarri argazki taldeak eta Kultura Sailak antolatuta, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

21:30 Zine-forum saioa. *Sólo una noche* filma landuko dute, Loredi Salegik dinamizatuta. Kafea pastekin hartuko dute lehenik, eta ondoren filma ikusiko dute. Antolatzailea: Haizea.

7 ZAPATUA

10:30 Dolmenen Ibilbidea. Izenematea, Debegesan. Doan. (657 794 677).

10:30 Stock feria. Txankakua merkatarik elkarrekin antolatuta, Maalako parkean. Zozketa 14:00etan egingo dute.

12:00 Edoskitzeari buruzko informazio mahaia jarriko du Maitasunez Hazi taldeak, Kalegoen plazan.

Meza ostean, Errosarioko Amaren ez-pata-dantza. Eliza aurrean hasiko da. Haritz dantzari taldeak antolatuta.

8 DOMEKA

10:00 Enduro moto lasterketa. Urnabitza motoklubak antolatuta. Mintxetan.

11:00 Mausitxa gaztandegira bisita. Debemen elkarrekin eta Eibarko Udalak Debabarreneko II. Gazta astea antolatu dute, eta horren barruan hainbat gaztandegi bisitatuko dituzte. Lehenengoa, Mausitxa izango da.

10 MARTITZENA

16:30 Coaching tailerra, emakumeen jabetzarako. Berdintasun Sailak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan. Gaztelaniaz.

18:30 Coaching tailerra, emakumeen jabetzarako. Berdintasun Sailak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan. Euskaraz.

12 EGUENA

12:00 San Pedroko igoera. Elgoibarko Lagun Taldea txirindulari elkarrekin antolatuta

17 MARTITZENA

16:30 Coaching tailerra, emakumeen jabetzarako. Berdintasun Sailak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan. Gaztelaniaz.

18:30 Coaching tailerra, emakumeen jabetzarako. Berdintasun Sailak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan. Euskaraz.

18 EGUAZTENA

19:00 Hitzaldia. Euskara generoaren ikuspegitik. Amelia Barquinek eskainiko du, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udaleko Euskara eta Berdintasun Sailak antolatuta.

MAQUINA ESPECIAL



* Torna CNC eta Lebedun makinak berriak
* Automatizazio Programazioa
* Euskarri elektronikoa
* Anuario Elektrikoen neurria
* Mundu Mekanikoa
* Subkontratazioa

668 83 34 75 / 660 37 68 54
me.maquina.especial@gmail.com

Uzuri optika audio

SAN FRANCISCO, 21 • ELGOIBAR • TEL. 943 74 03 59
OSTOLAZA, 7 • DEBA • TEL. 943 19 21 92
www.uzurioptika.com | facebook.com/uzurioptika

ENTZUMEN-OSASUNAREN KANPAINA DOAN



Entzumen-kalitateaz gain, BIZITZA-KALITATEA DA.

Araozak al dituzu telebista entzuteko?
Araozak al dituzu hitz egiten dizutenean entzuteko?
Baliu ez dizuten audiofono batzuk erosi al zenituen?

- 20ko deskontua audiofonoetan
- Finantziakzioa
- 30 eguneko proba-aldia, inolako konpromisorik gabe

Entzun hobeto eta gogoratu gehiago, esfortzu gutxiagorekin

TODI.LLA

Zinea (Herriko Antzokian)



'Detroit'

6 barixakua, 21:30
7 zapatua, 19:00 / 22:15
8 domeka, 19:00
9 astelehena, 21:30

'Abracadabra'

12 eguena, 19:00
13 barixakua, 21:30

'Verano del 1993'

14 zapatua, 19:00 / 22:15
15 domeka, 19:00
16 astelehena, 21:30

'Cars 3'

15 domeka, 16:30

'Goodbye Berlin'

19 eguena, 21:30

Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00

6 Barixakua BARRENETXEA
7 Zapatua IBAÑEZ
Goizez, ETXEBERRIA
8 Domeka IBAÑEZ
9 Astelehena GARITAONANDIA
10 Martitzena ETXEBERRIA
11 Eguaztena FERNANDEZ
12 Eguena FERNANDEZ
13 Barixakua ORUESAGASTI
14 Barixakua BARRENETXEA
15 Zapatua BARRENETXEA
16 Domeka IBAÑEZ
17 Astelehena GARITAONANDIA
18 Martitzena ETXEBERRIA
19 Eguaztena FERNANDEZ
20 Eguena YUDEGO

GUARDIAK 20:00 - 22:00

Guardia Elgoibartik kanpora denean,
asteburuetan izan ezik: BARRENETXEA
Errosario, 26 (Elgoibar) - 943 741 277

22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar) - San Agustin, 3
943 820 533

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro) - Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9
(Soraluze) Tel.: 943 751 384

Irailean hildakoak

. Jose Arias Rodriguez

90 urte, irailak 5

. Isaac Ramos Lopez

66 urte, irailak 12

. Begoña Galdos Urrutia

82 urte, irailak 13

. Jose Luis Azurmendi
Garmendia

88 urte, irailak 14

. Margarita Gabilondo
Urkizu

88 urte, irailak 15

. Enrique Martinez
Goikoetxea

74 urte, irailak 15

. Jose Correa Diez

81 urte, irailak 15

ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



1946

Bainuetxeak atsedenerako erabiltzen ditu batek baino gehiagok, baina argazkikoek ospakizunerako baliatu zuten Altzolako bainuetxeko jangela. Elorza sendikoak dira argazkikoak. Gaur egun Altzolan ez dago jatetxerik eta argazkiko guztiak joanda daude, baina haiek oroitzeko argazkia ekarri digu Mariasun Ubiriak erredakziora. Hona hemen argazkikoak zeintzuk diren.

Zutik: Pedro Atristain, On Martin Oregi, Migel Ubiria, Miren Zubizarreta. Juani Barrutia, Ramon Canales eta Manolo Ubiria.
Behean: Genoveva Gabilondo, Gabina Elorza, Basilia Gabilondo eta Sebastian Ubiria.

Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

- * Telefonoa: **943 744 112**
- * e-postaz bidali: barren@elgoibarkoizarra.eus
- * Barreneko bulegora ekarri: **Kalebarren plaza, 2**





RENAULT
Passion for life

RENAULT GAURSAN, HILABETE HONETAN AUTOZ ALDATZEN LAGUNTZERA TEMATU GARA.

Etorri eta aukeratu gustukoena.



Renault **MEGANE**

Renault **CAPTUR**

Renault **CLIO**

ESKATU 500€-ko DESKONTUA, EROSTEAN

RENAULT GAURSA. #nosmovemoscontigo

Renault Captur gama berria: kontsumo mistoa (l/100 km), 3,6 eta 5,6 bitartean. CO₂ isuriak (g/km), 95 eta 127 bitartean.

Renault Clio Berría gama: kontsumo mistoa (l/100 km), 3,3 eta 5,6 bitartean. CO₂ isuriak (g/km), 85 eta 127 bitartean.

Renault Mégane gama berria: kontsumo mistoa ((l/100km), 3,7 eta 6 bitartean. CO₂ isuria (g/km) 95 eta 134 bitartean.

Eskaintza hau Renault GaurSan da baliagarria, partikular eta autonomoentzat, baldin eta Renault Mégane, Renault Captur edo Renault Kadjar autoa erosten badute, RCI Banque SA Sucursal en España-rekin finantzatzen badute 2017ko irailaren 1etik 30era bitartean, eta edozein markatako ibilgailu bat entregatzen badute Renault berria erosteko. Borne daude zergak, garrakoa, Acción Reprise eta RECSAK eskaintako promozioak. Finantza beharreko gutxieneko zenbatekoa: 6.000 € Gutxieneko epea: 24 hilabete. Ez da bateragarria beste finantza-eskaintza batzuekin. 500 €-ko balesa, autorekin lotutako egungo eskaintzez gain. Irudian ageri diren modeloak: Renault Clio Zen Energy TCe S&S 90cv, pintura metalizatua berezia eta pack look Zen-a, PSP gomendatua: 12.250€. Renault Captur Zen Energy TCe 90, pintura metalizatua, PSP gomendatua: 15.200€. Renault Mégane Zen Energy TCe 97kW (130CV), pintura metalizatua, Full Led-a, Head-up display-a, 46 cm-ko (18") aleaziozko haguak, Pack Easy Park Assist-a eta 22,1 cm-ko R-link-a (8,7"), PSP gomendatua: 19.348€.

Renault gomendatzen du

renaul.es

GAURSA

Otaola hiribidea, 22. Tel. 943 82 09 74. EIBAR www.gaursa.com



STOCK



FERIA

ELGOIBAR

NOIZ? URRIAK 7, ZAPATUA

NON? MAALAKO PARKEAN

10:00 ETATIK 14:30 ERA

PAKTE - BARTZEKO EDO INFORMAZIO GERTAGO NAHI EZANEZ GERO DETU 943747301 TELEFONO ZENBAKIA.